

Hasia zen eguna guretzat, baina ilun zegoen oraindik, hotz egiten zuen, negua zen. Eztulka ari ziren autoen motorrak lantokira bidean, sukalde banaka batzuetako argi urdinak piztuta zeuden. Erabat esnatu gabe zegoen eguna, eta erabat esnatu gabe azaldu ginen autobus geltokira, bart gaueko ametsak betazaletan itsatsita gelditu balitzaizkigu bezala. Ez zen berriketarako gogorik. Ez zegoen zigarroa piztea bezalakorik autobusa berehala etortzeko.

Astun ageri zituen betazalak Izibenek, ametsen zamaz edo lo faltaz. Sagarroi bat bezala kiribildu zen jarlekuan, eta berehala hartu zuen loak. Loak berekin eramanez aurretik, irribarre amultsu bat marraztu zuten bere ezpainen, edo hala iruditu zitzaizkidan behintzat, goizaren beltzak ispilu bihurtutako leihoan. Diktadore baten estatua bezain zurrun harrapatu ninduen loak. Eta ametsetan, autobusa ez zen inoiz gelditzen, eta sagarroi bat neraman ondoan, eta ezerk ez zidan beldurrik ematen.

Autobusa gelditu egin zen, noski, eta fakultateko kafe makinari txanpon batzuk bota genizkion erabat esnatzeko. Bestelakoa behar zuen handik aurrerako ametsak: borondatea, lana, fedea. Nik ez nuen ezer askorik egiten. Irakurri egiten nuen, liburutegian eskatu nuen babes politikoa, nonbaitekoa sentitzeko eskubidea. Izibenek mundu bat eraikitzeari ekin zion. Olio edo tintaz, habitatzeko moduko mundu bat eraiki nahi zuen, eta orain badakigu ez zebilela erratuta.

Habitatzeko moduko mundu bat eraiki nahi bazuen, errealitatea habitatzea ezinezkoa

egiten zitzaiolako izango da, seguru asko. Ezinezkoa egiten zitzaiolako ohiturak bizi zuen herri batean isilik irautea, egia ezkutatu eta itxurak egitearekin konformatzen zen jendar-te batean amore ematea. Onerako, eta batez ere txarrerako, Izibenek egia esateko konpromisoa hartu zuen; mingarri suerta zitekeen artea egitekoa, alegia.

Baina nola esaten da egia hitzak esanahiz hustuta daudenean?

Nahikoa da tinta pixka bat eta orri zuri batzuk. Nahikoa da olio pote batzuk eta mihise zuria. Hori, eta ausardia handia. Zure mamuekin borrokan aritzeko deliberoa beti da zaila hartzen.

Pinturako txokoa deitzen genion, gehiegizkoa irudituko zitzaigun bizilekua deitzea, baina hantxe bizi ginen, hantxe sentitzen ginen beste inon baino biziago. Trementina usain sarkor batek

ematen zizun ongietorria, mihisez inguraturako babesleku hartara. Eta beti piztuta egoten zen irrati-kaseteak. Eguraldiaren arabera aukeratzen genuen musika. Musikaren arabera aldatzen zitzaigun aldatzea. Aldartearen arabera, inoiz ausartzen nintzen mihiseak zikintzen. Oso noizean behin izaten zen hori. Izibene lanean ari zen beti.

Baina hori gero izan zen, Izibene itzuli eta gero. Nazim Hikmet poetak esan bezala, lekuz aldatzen denean kanbiatzen da jendea, eta Izibene Herbeheretako Hagan aldatu zen. Ez naiz ari orrazkeraz, edo janzkeraz; ez naiz ari ikasteaz, jende eta leku berriak ezagutzeaz, orain bogan dagoen esperientzia berriak bizitzeaz. Ez. Norbera aldatzen da norbere

# HABITATZEKO MODUKO MUNDUA DA FIKZIOA

**Xabier  
Gantzarain**

buruarekin aurrez aurre egon beharra tokatzen zaionean, eta Izibenek bere mamuekin egin zuen topo, bere izatearen zutarriak ikusi zituen lokatzetan hondoratzen Hagan. Han hasi zen etengabe marrazten, han hasi zuen bidea, orduan ez jakin arren bide horrek nora eramango zuen. Orduan ez zekien marrazki haiek bizia hartuko zutela, *Hezurbeltzak* animazio lana bihurtzeraino.

Hagan egindako marrazki haiek, obsesio txiki bat bihurtu zitzaizkion, haixetan ikusten zuen jarraitu beharreko bidea. Eta marrazkiak hartuta, animazio gela okupatu zuen. Batzuek, ikasgaiari eskaini beharreko orduak ematen zituzten han; Izibenek, ahal zituen ordu guztiak ematen zizkion ikasteari, tinta pixka bat eta orri zuriak zituela helduleku bakar. Berak ere ez du jakingo zenbat ordu sartu dituen *Hezurbeltzak* egiten. Ez nuke nahi, hala ere, sartutako orduen kopurua irizpide bat izatea lana epaitzeko orduan. Dedikazioak ez dakar derrigorrez lana ona izatea.

Animazioaren prozesu osoa ikusia nuen arren, harrিতa geratu nintzen pelikula ikusi nuenean. Egia esateko, ikusten dudak bakoitzean geratzen naiz harrিতa, aldiro aurkitzen baitizkiot gauza berriak.

Grazia egiten dit kazetariak, laburtu beharrenden laburtu beharrenekin, karga sexual handia aipatzen dutenean. Hori esatea, ezer ez esatea da. Sexua gozamina da, baina baita bazterketa, umiliazioa, inkomunikazioa, bakartzea, eta eredu ezarrien diktadura ere. Sexuak gure barruko piztia esnatzen du. Sexua gozoa izan daiteke, baina baita zakarra ere. Sexua maitasuna da, baina baita botere harremana ere. Beraz, karga sexual handia aipatzen denean, zehaztu beharra dago amini bat, artistari eta ikusleari zor zaien errespetuagatik bada ere.

Ikusleari begietara sartzen zaion lehen pertsonaiak, ikurrak botatzen ditu, ikur ulertezinak, hizkuntza arrotz bateko hizkiak bailiran,

erle zoroak, komunikatu ezinaren kodea marrazten gure buruen inguruan.

Horrekin hasten da *Hezurbeltzak*. Eta horixe esan nahi du hezurbeltzak hitzak: egiten duena egiten duela beti diferentea izango den pertsona da hezurbeltza, hasiera-hasieratik bazter uzten dena, norberarena ez den beste talde batekoa delako, berak aukeratzetik izan ez duen talde batean jaiotzeagatik estigmatizatua, jatorrizko bekakua bere gain eramatera kondenatua. Eta denok gara hezurbeltzak, arrazoiari ihes egiten dion motiboren batenagatik baztertuak izan garen neurrian.

Eta gainera ezinezkoa ematen du horri aurre egiteak. Pelikulako pertsonaia emeek, esate baterako, ez daukate besorik: ez daukate ahalmenik. Izan dezakete borondatea, gogoia, asmoa, nahia edo desira, baina ez dute ahalmenik. Ezin dute ezer egin. Zain egotea besterik ez zaie geratzen. Ez dakit nik nora begira dauden kazetariak, boterea erabat maskulinoa den gizartearen kritika ez ikusteko filmean.

Ez dakit nola ez duten esaten Walt Disneyk (eta horrek esan nahi duen guztiak) atzetik ematen digula erakusten dela filmean, eta gainera gero bere burua jartzen digula geurearen partez, eta eskizofrenia ikaragarri batean hondoratzen gara.

Beharbada ez da hori kazetarien lana. Beharbada han eta hemen saritu dutela esango dute, hainbat jaialditan erakutsi dutela.

Eta gero harritu egingo dira pertsonaiek ikur ulertezinak botatzen dituztela ikusita.